

HERRIZAINGO SAILAK MARTXOAREN 1EAN HAUTESLEKURA BERTARATU EZIN DIREN HAUTESLEAK ERAMATEKO ZERBITZUA ANTOLATU DU

Eusko Legebiltzarrerako 2009 hauteskunde egunean, gaixorik daudelako edo urritasun fisikoren bat dutelako, hauteslekuetara bertaratu ezin diren pertsonentzako garraio zerbitzu bat antolatu du Herrizaingo Sailak. DYAKo eta Gurutze Gorriko langileak arduratuko dira zerbitzuaz.

Aurreko Eusko Legebiltzarrerako 2005eko hauteskundeetan bezala, martxoaren 1erako ere Herrizaingo Sailak garraio zerbitzu bat abian jarri du hiru hauteskunde mugabarruetan, gaixorik dauden edo mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonak hauteslekuetara eramateko. Eusko Legebiltzarrerako 2005eko hauteskundeetan, 200 hauteslek erabili zuten zerbitzua.

Lan hau burutzeko, EAEko Gurutze Gorriak eta DYAK ezin eskertuzko laguntza eskaini dute eta, hortaz, zerbitzua erabili nahi duten pertsonak otsailaren 27a baino lehen eurekin jarri beharko dira harremanetan zerbitzua zehazteko. Telefono zenbakiak honakoak dira:

Gurutze Gorria: 902 22 22 92

DYA: 902 46 46 22